

Pumori igon dau Txikonek Everesteko tontorrari ekin aurretik

10. orrialdea

Arratia A eta B taldeak lidertzan

Arratiako futbol taldeko andrazkoen talde biak lidertzan dagoz euren kategorietako sailkapenetan.

Denporaldi itzela dabiz egiten arratiarrak, A taldeak hamasei partidu irabazi ditu, hiru bardindu eta bakarra galdu dau. Hirurogei puntu positibetatik bederatzi bakarrik galdu dabez. **10. orrialdea**



Hozkailua antzezlanaren Igorreko Kultur Etxean zezeilaren 9an

13. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

289

2018ko zezeilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org



Aratusteak Arratian



Bihar da ba Deun Agate

Ohitorea dan lez, bere ibilbideari ekingo deutso Arratiako Koruak Arratiatik zein Arratiatik kanpo Santa Ageda bezperako koplak kantetako zezeilaren 4an. Bilbon ohiko ibilbidea egingo dabe; aurten oster, nobedade moduan Miribillan abestuko dabe Retabet Bilbao Basket eta Montakit Fuenlabradaren arteko

saskibalo partiduko atsedendian. Areatzatik urten eta Areatzan emongo deusie amaiera egunari Arratiako korukoak.

Beste hainbat koru be ibiliko dira Arratia, Ubide eta Zeberion santaeskean. Santa Ageda eguneko hurrengo domekan, Zeanuriko Santa Ageda ermitan, martirioa kontetan dabezan koplak zaharrak kantauko ditue. **5. orrialdea**

Arratiako herri gehienetan ospatuko dira aratusteak eta umeak, gazteak zein persona helduak aukerea izango dabe euren moztroak aukeratu eta pres-

tetako. Gainera, jai honeetan eskeintza zabal izango da, besteak beste, umeentzako jolasak, kalejirak, herri bazkariak, kontzertuak eta moztro txapelketak. **12. orrialdea**

ARRATIA

Dima, Igorre eta Lemoan aurrekontuak onartu dira

Dima, Igorre eta Lemoako aurrekontuetan aitzazkoa da diru kopuruak gora egin dauala. Dimako Udalak 1.607.854 euroko aurrekontua izango dau, igazkoa baino 149.088 euro gehiago. Igorreko Udalean, barriz, 4.874.220 eurokoa da, aurrekoan baino 540.000 gehiago. Lemoako Udalak 4.112.970 euroko aurrekontua eukiko dau aurtengo urterako, igazkoa baino % 6,8 handiagoa.

Igoera horreek hainbat proiektu egiteko aukerea emongo deusie Udalai, besteak beste, Diman Iturrigorri, Landaburu eta Eleizalde inguruetan hobekuntzak; Igorren Jubiladuen txokoaren atzekaldean egin gura dan Gabolan aparkalekua; eta Lemoan parte-hartze prozesuan herritarrek gehien bozkatutako skate-parkea. **5., 6. eta 7. orrialdeak**

IGORRE

Herri galdeketea maiatzaren 6an

Gure Esku Dagok 180 herritan egin ditu konsultak eta 177.000 parte-hartzaile izan ditu. Ekimen hori bultzatzeko herri askotan taldeak sortu dabez.

Igorren, igaz sortu zan Igorren Ebatzi (IE) taldea. Maiatzaren 6an egingo dan herri konsultearen zergaitia azaltzen dabe erdiko orrietan eta hori gauzatu ahal izateko alkarlana ezinbestekoa dala azpimarratzen dabe. Horregaitik, Igorreko erakunde zein banakoak zezeilaren 22an egingo daben batzarrera konbidau gura dabez. **8. eta 9. orrialdeak**



AREATZA

Areatzako toponimia eta herri ondarea

Areatzako toponimia eta herri ondarea batzeako lana egin dau Areatzako Udalak, Labayru Fundazioagaz batera.

Testigantza guztiak bilduta 30 orduko ikus-entzunezko lana osatu da eta horren barri ordu erdiko bideo baten bidez emon eben abenduaren 28an.

Aurrera begira, egindako toponimia lana eta aurretik egozan datuak baliatuta mapa toponimiko bat egiteko asmoa dauka Udalak. **13. orrialdea**



ARRATIA KOLOREETAN



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urtailaren 29tik zezeilaren 4ra

Rodriguez Martinez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya, Amorebieta-Ebxano.

Zezeilaren 5etik 11ra

Traver, Bedia, J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Melero, Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 12tik 18ra

Badiola, Artea, Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa, Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza, Francisco Kortabarria 2, Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Ane Rilo Gonzalez. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Illart Gumuzio eta Alvaro Rabelli.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Erdu/erduzie



Erdu/erduzie berben esangurea da: hator, zatoz/zatozie edo etorri hadi, etorri zaitetz/etorri zaitetzie. Gaur egun, hain zabal ez badabiz be lehenago erruz erabilten ziran (érdu, érduzie agoskatuta). Goazen adibide bi honeekaz, bata, Bonifazio Latxa Ubideko idazleari jasotako koplak polit hau: "Mutilok dagoz fumatzan,/euren artean pentsatzen/nori esango ete deustien:/erdu jantzan apur baten!"; eta bestea, "Berbalagunok, erduzie geugaz mahai ingurura kontu-kontari!".

ERETXIA

Ajudeu-me

Lagundu naizue/Ajudeu-me dino Eliana Oliveira de Freitasek 2014an idatzi eban liburuaren izenburuak eta hori da, hain zuzen be, nik, katalan hizkuntza ikasle gisa, hasikera-hasikeratik sentidu dodana.

Argi neukan eta daukat hizkuntza bat ez dala bakarrik komunikazinarako tresna bat, mundua ulertzeko eta alkarreragiteko modu bat be bada, eta partekatuten daben sinbologia horren parte izan gura neban kosta ahala kosta.

Buru-belarri euskerea normalizetako erabili izan dodan diskursoa guztiz neure egin eta tenis partida bat bihurtu da ikasketa prozesua. Peloteari emon (nik katalanez hasi barriketaldia), baina besteak segidu ez. Partida gelditu eta besteari lasai asko peloteari emon ahal deustala esan, nik zelan edo halan, partida segiduko dodala sinistarazo eta barriro jokoan hasi.

Horrek buruko min asko emon deustaz: nik tenis partida segidu gura neban, peloteari emoteko txiribuektak egin behar banebazan be, emoteko konbenzimentu osoa neukan. Baina nire tenis bikoteak "lagundu guran", lasai esaten eusten behin eta barriro: beste zeozer egin ahal dogu, ez larritu nigaitik, aske sentidu.

Begi bistan neukan argi eta garbi hizkuntza menpekotasuna bere osotasunean.

Hizkuntza menpekotasuna minorizauta dagoan hizkuntza baten hiztun komunitateko indibiduoak, arrazoi historiko eta politikoak dirala medio, ikasi daben portaera mota bat da. Portaera horretan, personak modu sistematikoan bere egiten daben hizkuntza baztertu eta hizkuntzaz aldatzen dabe.

Urte honetan zehar, tristurea, samina, dezepzinoa, inpotentzia, eta ezin ulertua izan dira tenis partida bertan behera gelditu dan guztietan euki dodazen sensazioak, eta sarri gertatu da.

Hizkuntza menpekotasuna



AMAIA ARAUZO

Euskalzalea

praktikatzen dabela erakustea izan da tenis partidan bikote izan diranai transmitidu gura izan deustiedana. Nik tenis partida jokatu gura nebala, tenis jokalaria izan gura nebala, "amateur" ligan baino ez bazan be. Ekinaren ekinez, lortu dot partidak jokatzea, disfrutetea eta besteak tenis jokalaritzat hartzea. Asertibidatea gakoa izan da.

Hizkuntza asertibidatea norberak bere egiten dauan hizkuntzan ahalik eta egoera gehiengotan berba egitea da, solaskideak beste hizkuntza batean berba egiten badeusku, guk gure egiten dogun hizkuntzan jarraituko dogu, solaskideagaz komunikazinoa lortzen dan heinean.

Katalunian egoerea bestelakoa zala uste neban, baina oker nenbilen.

Euskal Herrira etorrita, milaka euskera ikaslez inguratuta bizi gara, erreztu deiegun bidea. Berhabada tenis jokalaria izan gura dabe eta.

LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Andron txoriari
hegoak ebagi
jakoz

Urtaile egun motelakaz, tris-teakaz, grisakaz, ilunakaz, euritsuakaz... hasi jaku. Begiak itxi dodaz une batez bada be eta amasea sakon hartu. Alperrik!

Giroaren umelak nire barrena be busti dau, eta artegatasuna sortu. Atzen egunotako barriak entzun osten eta hainbat irudi ikusi eta gero ez dot argi izan XXI. mende honetan topetan garan. Ezinegona, larritasuna, kezka... sortu jataz hile honen aldats gora latza garratza bihurtuz.

Hemen dozuez horren zergaitiaren hainbat adibide: sagardo barriaren egunak, txotx garaiari hasikerea emon eutsan; txakolinaren denporaldia zabaltzeko be txakolin eguna ospatu zan Getarian; bietan gizonetako nagusi, bietan andrazkoaren presentzia hutsaren hurrengoa.

Non egozan andrazkoak? Ez ei dabe sagardorik edaten? Ez ei dabe txakolinik edaten?

Jaia, parrandea, kalea, edana...

gizonezkoena ete?

Familia eta haurren ituna aurkeztu eban Jaurlearitzako Lehendakari dan Urkulluk. Ituna aurkezteko eta izenpetzeko ekitaldian be andrazko bakarra agertu jakun, bost gizonen ondoan.

Hartutako erabagietan andrak ez al dabe parte hartu? Eta agiri horren zirriborroan lan egin badabe, zergaitik ez dira argazkian agertzen?

Poderea be gizonetakoena ete?

Anoetako ohorezko sakean Maialen Lujanbiok berak abestutako bertsoan neska-mutilen kirolerako aukerak bultzatzearen alde mintzatu bazan be, danok dakigu kirol gehienetsuenetan ze baldintzatan dagoan andrea, ze baldintzatan gizona.

Kirola be gizonetakoena ete?

Lan berbera egin arren andren eta gizonen arteko soldata desoreka ez da txikitu.

Sexuaren araberako lan banaketea...

Ekonomia be gizonetakoena ete?

Honeek adibide batzuk baino ez dira.

Hotza. Hutsa.

Txori erresinula ez da neguan ageri, ixilik dago.

Hotza. Hutsa.

Artzeren Txoriak Txoriri ez bezala, andron txoriari hegoak ebagi jakoz. Androk hegoak astindu beharko geunkez, hegoak zabaltzeko indarra, hegoak zabaltzeko kemena, hegoak zabaltzeko aukerea... izan beharko geunke.

Non ete dago gure txoria?

Besteen eskuetan? Gure eskuetan?

Nora aldegin ete dau?

Besteen eskuetara? Gure eskuetara?

Jaiki gaitezana!

Txori erresinula udan da kantari.

ZERTZEAN



IBON IZA

1

Eskola hasi jata barriro negarrez bizi gurako leuke oker, ahuspez, trabes? dana bete deuskue arau eta legez barrua zuri-baltza kanpoa kolorez umeari barrerik ez kendu mesedez.

2

Horma zuri-zuriak ugerrez zikinak ai eskola daukazuz aspaldiko minak sistema gogor batek barruan eginak dana bardindu nahian bide desbardinak zure malkoak dira gure itoginak.

3

Pentsatzen ikastea omen dogu zigor ingelesa sartzeko asmoa more and more... gaitasunak bihurtzen ahal gabiltza alor? ume-aroa zelan dogun danon altxor inori ezer kentzeko gu ez gara inor.

4

Zenbat inertzia eta zenbat kanpo indar adimena goraka bihotza katamar batzuen zantzoak dira besteen deiadar ez ahal daukagu sarri igual botere lar... umeak bihurtzeko zero edo hamar.

5

Geroari begira non dago oraina? edukiz bete dogu poltsa alajaina!! Nor da "oso ondoa" ta nor da "bikaina"? elefantea ezin da izan arraina hori gurako geunke batzuetan baina.

6

Haurrak behar gaitu gu uanean uanean haren asetasunak daukan hutsunean badago ibiltzeko bidea gurean pozik biziko gara gu garen umean desikasten ikasten dogun egunean.

BEGI TXINDORRA

Lehenago ibiliak izan baginan be, 2000. urtean hasi genduan ibilbidea Urbideko Urbide landetxe eta jatetxean. Etxekoan arteko etxeko etxeko negozioa izan da, ama alabok urteokaz hartu dogun esperientzia umiltasunez eta eskuzabaltasunez transmitiduten ahalegindu garana. Etorri diranak gose barik joatea gura izan dogu beti, eta zelan ez, bueltetea. Jente asko ezetuteko aukerea emon deusku Urbidek, askogaz hartu-emon berezia sortuteraino. Beste leku askotakoak be bai, baina aratarrak faltau bako bezeroak izan zarie sarri. "Esterrena" izenagaz egin da ezagunago Urbide akaso, eta ez da gitxiagorako, bera da-eta sua hauspotuten dauana.

Ziklo barri bat hasteko beste bat itxi behar ei da ostera, eta hori da hartu dogun ebatzia, penaz baina bide barriai ekiteko ilusinoz. Sakrifikaua askotan, esker onekoa askoz gehiagotan, oin guri toketan jaku eskerrak emotea, eskerrik asko benetan gugaz kontau dozuon danoi.

Halanda be ez dogu Urbideko atea betiko zarratuterik gura, bizirik jarraitu dagian baino; eta hori posible izateko, errentan ipini dogu. Errendimendu osoan dago Urbide, ez da inbertiduterik behar eta bezeroak ziurtatuta ditu. Gogoa eta motibazioa bakarrik behar dira, Urbidek oin arte euki dauan esentzia galdu barik ahal dala. Ezelango konpromiso eta bildur barik, datorrela gura dauanak gugaz berba egitera.

Ibargutxi Ugarte familia



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Olatondegia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bilakala
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 801
R.P.S. 31/06

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnos. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

IGORRE

2018rako aurrekontua onartu dau Udalak

Urtailaren 22an egin zan osoko bilkuran onartu ziran aurtengo aurrekontuak EH Bilduko zinegotzien sei botoakaz; EAJ-PNVko bost zinegotziak, barriz, kontrako botoa emon eben.



Hemen egin gura dau Igorreko Udalak aparkalekua.

Erredakzinoa

Aurrekontua 4.874.220 eurokoa da, igazkoa baino 540.000 euro gehiago. Igoera hori, batez be, hiru faktorek eragin dabe; Batetik Udalkutxatik jasotakoa 310.000 euro igon da; bestetik, aurreikus-ten diran obra pribadu batzuen zerga eta tasek 150.000 euroan igongo diran aurreikuspena dauka Udalak; eta atzenik, "boulderra" berreraikitiko asegurutik 110.000 euro jasotea espero dabe.

Diru-sarrera igoera horrek al-daketak ekarri ditu partidetan.

Hainbat partidatan igoerea izango da

Bardintasunerako jardueretan 3.000 euroko igoera dago. Ludotekea, udalekuak eta ume eta gazteentzako jardueretarako 11.000 euro gehiago dagoz. Kirol jardueretarako 5.000 euro gehiago jarri dira, 94.000 euroko partidea. Euskerea normalizetako ekintzetarako be 4.000 euro gehiago egongo dira eta 43.000 euro izango ditu partida horrek. Adinekoentzako jarduerak antolatzeke be 26.000 euroko partidea dago, igaz baino 6.000 gehiago. Kultur Etxetik kanpoko ekintza

kulturaletarako be beste 10.000 euro gehitu dira, guztira 47.000. Enplegua sustatzeko partidaren 68.052 euro dagoz, horregaz Beharbidetako proiektuari jarraipena emongo jako; horrezaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako prestakuntza ikastaroak emongo dira. Personal gastuak be handituko dira, Udalak harreraren beste administrari bat jarzteko asmoa dauka eta.

Diru-laguntza nominatiboak

Alkarteari emoten jakiezan laguntza nominatiboak mantentzen egongo dabez oro har (AME, Jubiladuen alkartea, Caritas...). Halanda be, "aurten Jai Batzordeari, modu nominatiboan emongo jakon diru-laguntzea 59.600 eurokoa izango da, igaz baino 5.000 euro gehiago" dino Igorreko Udalak prentsa oharrean.

Hainbat inbersino egitea aurreikusita da

Herrian hobekuntzak egiteko 326.359 euro egongo dira. Horreetan estrategikoen Jubiladuen txokoaren atzekaldean egin gura dan Gabolan aparkalekua izango da, 90 autorentzat lekua izango dauana.

Beste proiektu batzuen erredakzioak be eginda dagoz edo zezeilean entregetakoak dira: besteak beste, erreka ondoko aisialdi gunea, Orobitik Arantzazura oinezkoen bidea, Lehendakari Agirreko interbenzino biak (Garben Arantzazurantz eta eleiza ondokiko Renault bitartean), Gezalara oinezkoen bidea, Garakoiko erreka lanak eta Lasarte ondoko espaloia konpontzea. Kirol instalazioetan be, aurten, lan batzuk egiteko asmoa dago. "Boulderra" berreraikitiko da eta kiroldegiko aldagelatan barrikuntzen 2. fasea egingo da.

ARRATIA

Santa Ageda bezperan, Arratia, Ubide eta Zeberioko kaleak koruz beteko dira

Aurten be, tradizioak agindutako moduan, Arratiako auzune eta herrietako kaleak koruz beteko dira, makila eskuan santeari koplak kantetako. Agate Deuna bezperan, Arratiako Koruak, adibidez, Arratian bakarrik ez, Arratiatik kanpo be kantauko dau.



Zeanuriko Undurraga auzoan santaeskean.

Erredakzinoa

Gaur egun, 50 partaide inguruk osotuten dabe korua eta, aurten, koruan zuzendari barria dago, Ainhoa Uria. Bilbon bizi da Uria, baina Arratikoa da izatez eta txikitarratik Arratiako Koruan abestu eban.

Aurten, ibilbidea aldatu behar izan dabe, domekea dalako eta ondorioz, ordutegi arazo batzuk dirala-eta ezin izango dabe Begoñako Basilikan kantau. "Begoñako mezaren ordutegiak ez ziran bateragarriak" dino Ana Sierrasesumaga Sagarna koruko partaideak.

Bilboko katedralean bai kantauko dabe osteran, 19:00etako mezea amaitzean. Santa Agedako omenezko koplakotako bat, "Ama maite" eta Madinaren "Aita gurea" kantauko ditu koruak.

Aurten koruak Miribillako Bilbao Arenan kantauko dau lehenengo, 12:00etan hasiko dan saskibaloi partiduen atsedenaldian. Aurreko urteetan lez batuko daben dirua Caritasentzat izango da. "Bilbao Arenan diru-batzean laguntzeko biltzaile batzuk eskatu deusaguz Caritaseri. Bertan, zortzi mila persona inguru egongo dira eta pentsetan dogu diru asko batu geinkela. Koruak biltzaile giti ditu hain denpora laburrean, Bilbao Arenan batzeako" dino Sierrasesumagak.

Ibilbidea

Hauxe da koruak egingo dauan ibilbidea: 08:00etan, autobusak hartu Igorren; 08:15ean, mezea

Areatzako parrokiari; 08:45ean, Areatzatik urtekerea; 09:00etan, Zeanuri; 09:20etan, Arantzazu; 09:40etan, Igorre; 09:55ean, Dima; 10:15ean, Lemoa; 10:35ean, Zornotza; 11:30etan, Bedia; 11:55ean, Galdakaoko Iturriondoko plazea; 13:00etan, Bilbao Arena Miribilla; 13:45ean, San Anton, Euskal Museoa, Zazpi Kaleak; 15:00etan, bazkaria; 16:45ean, Bilboko Udala, Guggenheim Museoa, Gran Vía (Kutxabank, Bizkaiko Foru Aldundia, BBVA, Laboral Kutxa, El Corte Ingles), San Nikolas, Metroa eta Zazpi Kaleak; 19:45ean, Santiago katedrala; 20:20etan, Arriaga aurrean agurra; 20:30etan, urtekerea Arratiantzat; 21:00etan, Artea; 21:20etan Areatza.

Arratia kantuan

Zezeilaren 4ean, urtero lez, Arratia, Ubide eta Zeberioko kale zein auzoak Kataniako santearien omenezko koplak kantetan dabezan taldeakaz beteko dira. Eskola umeak, parrokiako koruak, abesbatzak, Igorren Ebatzi taldekoak, lagun taldeak eta kultur alkarreetakoak, besteak beste, koplak errepertorio aberatsa eskeiniko dabe.

Zezeilaren 11n be kantuan

Aurten Santa Ageda eguna astelehena da eta hurrengo domekan Zeanuriko Agate Deunaren ermitan santearien martirioa kontetan daben koplak zaharrak kantauko ditu bost andrazkok eta bost gizonazkok osotuten dauan koruak.

IGORRE

LABek Igorreko osasun zentroko pediatria faltea salatu dau

Erredakzinoa

Igorreko osasun zentroan, pasa dan urtailaren 19ra arte, pediatria bi egozan, Arratiako ume ugari euren kargu eukiezanak.

Bariku horretan, bietatik batek bajea hartu eban. Ondorioz, batek bien lana beteten dau, eta LAB sindikatuak salatu dauanez, "honek suposatu eban egun bakarrean 55 ume ikusi behar izatea eta bere lanaldia ordu betez luzatzea, holango egoerek sortzean daben presinoa eta lana ondo ez egitearen sensazioari, zuzendaritzaren aldetik bat be garrantziarik ez emotea" gehitu jakon.

Sindikatu horrek Osakidetza eta

Jaurilaritari leporatuten deusak aurreikuspen faltea, eta egoera "denporazko bonba" bat dala gaineratu dau. "Datozan urteetan milaka eta milaka mediku

erretirauko dira. Neurri sakonak ez badira hartzean, egoera arriskutsu baten aurrean izango gara, osasun arreta bermatu ezinik" adierazto dau LABek.



Igorreko osasun zentroa.

IGORRE

San Kristobalgo ermitearen ondoan indusketak egin dabez

Erredakzioa

2017ko urri bigarrenean, oin dala urte batzuk San Kristobalgo ermitearen behealdean topau zan nekropoli ondoan, indusketak hasi ziran egiten, nekropoliagaz lotuta egoan asentamentua topetako asmoz. Aranzadi taldeak lekua miatu eban. Aranzadik 25 metroko perimetroan gauzatu eban azterketea eta gauza handirik topau ez eben arren, ikerketearen ildo guztiak ez dagoz itxita.

Udalak lan horreek egitea eskatu eta indusketak egin bitartean bertan egon arren, eskumena Bizkaiko Foru Aldundiko Ondarea sailarena da. Lanak BFAren ardurapekoak dira eta gastuak be bere gain doaz.

Bestalde, ermita barruko lanak zain gelditu dira. "Indusketak ez dira hasiko kanpokaldean topautakoaren emoitza definitibotzat jo arte", adierazo dau Beinat Anzola alkateak.



Kobazuloak be aztertzeko asmoa erakutsi dau Udalak. Igaz Getalueta kobazuloa miatu zan. Bertan, zeramikazko pitxar bat eta gizaki baten hazur zati batzuk topau ziran. Aurten be, arkeologo bat deitu da Atxarte kobazuloan indusketak egiteko "zeozer interresgarria topau ezkeru Ondarekoakaz kontaktuan jarriko gara, etor daitezcan" dino alkateak. Ondareak kobazulo guztietan ikerketa txiki bat egin gura dau, Bizkaiko patrimonioa mugatzeko asmoz.

IGORRE

Talleres Negarrako langileek 5 nomina zor deusiezala salatu dabe

Erredakzioa

Igorreko Talleres Negarrako langileek kontzentrazioa egin eben urtailaren 25ean 5 nomina kobrau barik daukiezala salatu teko. Negarrak 85 langile ditu. "2014ko apirilean egoera ekonomiko txar baten atxakipean kaleratze kolektibo bat eroan eban aurrera enpreseak. Politika neoliberalak jarri ebezan martxan, 30 langile kaleratu eta soldatak izoztuz. Orduetik zorretan euki ditu nominak, eta atzen bi urteetan, 2 nomina atzeratzen ibili da. Egun 5 nomina zor deuskuez langileoi eta ez daukagu beharrik tailerlean" dinoe enpresako langileak BEGITURA helarazotako

oharrean.

"Honek argi erakusten deusku politika neoliberalak ez dabela enpresearen egoera ekonomiko hobetzen, langileen bizkarrera botatea baino egoera ekonomiko txarra" dinoe.

"Krisia deitzean deusien honen ondorioz, langileen baldintzak okertu dira. Talleres Negarrako egoera, honen adibide argia da".

Enpreseak erantzukizuna bere gain hartu dagiala eta Eusko Jaurlaritzak benetako politika industrial martxan ipini dagiala eskatzen dabe, "langileak hobeto bizi ahal izateko, eta ez enpresen irabaziak bermatzen dituenak bakarrik".

ZEBERIO

Informatika ikastaroak apirlean

Erredakzioa

Zeberioko Udalak apirilaren 16tik 24ra antolatu dituan lehenengo mailako informatika ikastaroe-tan izena emoteko epea zabalik dago.

Ikastaroak testu dokumentuak, kalkulu-orriak eta aukezpenak zelan egin ikasteko aukerea emon-

go dabe. Horretarako, LibreOffice Writer, LibreOffice Calc eta LibreOffice Impress dira bertan landuko diran programak. Kzgunean emongo dira ikastaro honeek, udaletxeko liburutegian.

Dobakoak izango diran informatika ikastaro honeen iraupena 4 eta 8 ordu bitartekoa izango da eta parte-hartzaileen kopurua mugatua da: 6 persona gitxienez eta 8 gehienez.

Izena Zeberioko udaletxean, 94 648 10 79 telefonoan edo udala.zeberio@bizkaia.org, helbidean emon daiteke. Izena emoteko atzen eguna apirilaren 9a izango da.

IGORRE

Siria eta Altsasuko gazteak buruzko berbaldiak Kiñun

Illart Gumuzio

Berbaldi bik osatzen dabe Kiñu Gaztearen zezeilako lehen hamabostaldiko programazinoa. Lehenengo, zezeilaren 9an 19:00etan, *Siria: 7 urte NATO, Israel zein wahabismoaren inbasio, gezur eta hilketak sufritzen* berbaldia egongo da Aritz Saidi eta Asier Herranz Siriaren Aldeko mobimentuko kideen eskutik. Bertan, Siriaren eta Ekialde

Hurbilaren errealidadearen barri emongo da, gaia historikoki gaur egunera arte azalduz.

Aste bat geroago, zezeilaren 16an 18:00etan, Ernaik eta Iksale Abertzaleak antolatutako berbaldian, euren herriko taberna batean bi Guardia Zibil eta euren bikotekideak liskarra izatearren zazpi gazte altsasuarrek daukien auziari buruz berba egingo da. Fiskalak, osotara, 375 urteko espetxe zigo-

rra eskatzen deusie terrorismo delitua egotzita eta Estremera, Navalcarnero eta Aranjuezeko kartzelan dagozan Adur Martinez de Alda, Oihan Aranz eta Jokin Unamuno auziperatuek ia 450 egun daroez preso epaiketea noz egingo zain. Epaiketea apirilaren 17a eta 27aren artean egingo da.



LEMOA

%6,8ko igoereagaz onartu dira aurrekontuak

Inbersinoen kapituluak %30,3 hazi da, eta horri esker "hainbat hobekuntza egin ahalko dira aurten; tartean, herritarrak holan ebatzita, skate-park bat egingo da" dino Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Erredakzioa

Lemoako Udalak 4.112.970 euroko aurrekontua eukiko dau aurtengo urterako, igazkoa baino %6,8 handiagoa. "Igoera horrek martxan dagozan proiektuak ja-

rraitzeko aukerea emongo deusku, baita hainbat obra garrantzitsu egiteko be, holan, inbersioen kapituluak %30,3ko igoera izan dau" dino Elejabarrietak. Aurrekontua urtailaren 23ko ezohiko udalbatzarrean onartu zan, EH Bilduren

aldeko sei botoakaz. EAJ-PNV abs-tentidu egin zan.

Aurrekontuetako diru-sarreen igoera, batez be, Bizkaiko Foru Aldundiaren Udalkutxaren ekarpenetik dator, igaz baino 259.180 euro gehiago bideratu ditu-eta Udalera. Horrez gain, diru-laguntza barri bat jasoko dau aurten Lemoako Udalak, generoaren ikuspegia plan orokorrean txertatuko dauan proiekturako.

Gastuen atalari jagokonez, inbersinoen kapituluak %30,3ko igoera izan dau. Guztira, 990.000 euro erabiliko dira udalerrian obrak egiteko. Besteak beste, aurrekontuen parte-hartze prozesuan herritarrek gehien bozkutatuko "skate-parkea egingo da, eskolako aterpeari atzen lanak egingo jakoz alboetatik zerratuz, Herradurako parkea estaliko da, Larrabeiti-

Iturritzeko saneamentua egiten hasiko da, haur txokoa egingo da ludotekea dagoan eraikinean, herri bideak konponduko dira, kanposantuko nitxoan azken fasea burutuko da, udal artxibo digitalizetako programa informatiko bat erosiko da eta paddle-eko kantxaren lurra konponduko da" dino alkateak.

Bigarren eta hirugarren kapituluak be igoera izan dabe. Biga-

rra, proiektuak barne hartzean dituan %4,9 hazi da, "horrek aurreko urteetako proiektuen jarraipena bermatzeko aukerea emoteaz gain Bardintasun Batzordetik sortu dan kultur aniztasunari buruzko beste egitasmo bat be martxan ipinteko aukerea emongo dau". Hirugarren kapituluak, barriz, transferentziai jagokon kapituluak, %6,9ko igoera izan dau.



Lemoa.

DIMA

Aurrekontua %10 igon da 2018rako

Erredakzioa

Diman 2018ko aurrekontua igotearen arrazoia Udalkutxaren igoera eta 2017ko Udalkutxaren likidazio positiboa izan dira. Hori dala eta, aurtengo kopurua 1.607.854 eurokoa izango da. Aurrekontu hori EH Bilduren 5 aldeko botoakaz atara da aurrera; EAJ-PNVren 2 zinegotziak kontrako botoa emon eben.

Udalaren zorrari jagokonez, sarreara korranteaganako %34,5a da; hau da, %35a baino txikiagoa. Porzentaje horrek, 90/2013 Foru Dekretuaren arabera, hemendik aurrera ez dala superbaita eta diruzaintza gerrakina zorra kentzera dedikatu behar esan gura dau. Hori holan, diru hori herrian behar diran gauzetan gastatuko aukerea egongo da.

Igazko aurrekontuko inbersinoen arloagaz alderatuz desbardintasuna agirikoa da. Batetik, eskoleagaz adostu eta gero, aurten eskolan egin behar dan inbersinorako diru kopuru txikiagoa aurreikusi da, "adostasun hori, 2017an egin zan ahaleginagaitik egon da, atzen 10 urteetan egindako ahaleginen ostean, eskolearen handitzea egin zan igaz. Horren ondorioz, eskolan 400 m² inguruko areto barria dago, bai eskolearen erabilerarako eta bai herritarren erabilerarako" dino Ne-

kane Intxaurtza alkateak; bestetik, inbersino handiena plazearen berantolaketean gauzatu ahal izateko inguruko kaleen hobekuntzara zuzenduko da. Horretarako, hau da, Iturigorri, Landaburu eta Eleizalde inguruak hobetuteko, 198.000 euroko partidea aurreikusi da. Ostera, urteko lehen hiruhilekoan, Panorama etxeen eraikuntzeagaz lotutako urbanizazio barri bat egiteko akordiora heldu dira Udala eta promotorea. Obren kostua promotoreak hartuko dau bere gain eta eskolako errotondea eta Iturigorri artean bide barria eregiko da, ibilgailuentzat trafikora zabalduko dana.

Horrez gain, auzo batzuetan urteetan egindako eskaerakaz lotutako inbersinoak be egingo dira: besteak beste, Zubimakurren 14.000 euroko partidea aurreikusi da; Saneamentu, ur-homidura eta bide-pistetan inbersinoak egiten jarraituko da; Sanea-

mentuan aurten Partzuergoak atzen fasearen proiektua (Leitoki-Oba Behekoa) egingo dau. Lan horreek aurrekontu handikoak izango dira, izan be, urte amaieran ejekuzinoari hasikerea emongo jako eta 2019an proiektuaren zati handiena gauzatuko da. Aitatzekoa da Partzuergoagaz egindako hitzamenari esker kostuaren %75a Partzuergoak ordainduko daua; Udalak, hortaz, %25eko kostua hartuko dau bere gain.

Gizarte ekintzarako partideari jagokonez, mantenu egingo da. 2017an aurreikusitakoa gastau ez bazen be, aurten kopuru bardina bideratu da, etor leitekezan egoerari aurre egiteko.

Amaitzeko, herriko alkateak lagundutako partidea %8 igon da. Beste partida batzuk be igon dira; besteak beste, bardintasan arloko diru-laguntzetarako partidea eta Dimesten proiekturako emondako dirua.



Aurrekontuetako plenoa urtailaren 23an egin zan.

ARRATIA

Jabier Kalzakortak Arratiako dantza-koplak liburua idatzi dau

Zezeilaren 24an Arratiako dantza-koplak liburua aurkeztu zan Arratiako Udalen Mankomunitateko Igorreko egoitzan.

Erredakzioa

Arratiako abesti tradizionalak batu dituen liburuaren aurkezpenan

idazlea bera, Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea dan Miguel Angel Etxebarria eta Labayru Fundaziozko Adolfo Are-



Jabier Kalzakorta, Miguel Angel Etxebarria eta Adolfo Arejita.

jita zuzendaria izan ziran.

Kalzakortak liburu honetan Arratiako koplak, ipuin zein esaerak batzea eta berreskuratzea lortu dau. Izan be, hainbat material egoan idatziz jasota, hainbat idazle eta intelektualleri esker; besteak beste, Eulogio Gorostiaga (Zeanuri, 1902-Areatza, 1932), José de Ariztimuño "Aitzol" (Tolosa, 1986-Hernani, 1936), Julian de Yurrerena eta Peli Etxebarria. Era berean, sano lagungarriak izan dira Colamus Carmina Nostra liburuan jasotako testuak. Aitzolek berak Espainiako Bigarren Errepublikaren sasoian hasitako Euskal Herriko poema eta kanta herrikoien bildumea da, hatan be.

Atzenean, Kalzakortak kopletera mugatu dau bere lana, argitalpenari homogeneotasuna emoteko asmoz. Liburuan guztira 500 pieza baino gehiago batzean dira: batzuk ezagunak dira; beste batzuk, ostera, ez hainbeste.

Arratiako Udalen Mankomunitateak, Labayru Fundazioaren eta BBK Fundazioaren laguntzeagaz editau dauan liburuaren lehenengo edizioa 500 alekoa izan da eta, hamaika euroren truke, Arratiako hainbat lekutan eskuratu daiteke, liburu-dendetan berbarako.

IGORRE

BATZek Zilarrezko Bikain ziurtagiria egiaztatu dau

Erredakzioa

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta Miren Dobaran Hizkuntza Politikako sailburuordeak Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak banatu ebezan abenduaren 13an, Bilboko Euskalduna Jauregian egin zan banaketa ekitaldian.

Jarduera ekonomiko desbardinetako 35 erakundek jaso eben ziurtagiria; horreetatik 16k goi-mailako urrezko Bikain egiaztatu eben; 17k tartekoa dan zilarrezkoa eta 2k oinarritzkoa.

BATZ S. Koop. ziurtagiri honetara aurkezten dan bigarren aldia da. Izan be, 2009an be zilarrezko ziurtagiria lortu eban. Bikain Ziurtagiria Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) oinarrituta mailakatzen danez, aitatzekoa da 2009tik 2017ra marko hori aldatu egin dala, eta aldaketa horrek puntuazioa emoteko momentuan zorrotzagoa izatea ekarri dau. Marko barrian euskerearen

kudeaketea, presentzia eta erabileria dira kontuan hartzean diran arlo garrantzitsuenak.

Talde ebaluatzaileak egindako txostenean azaldu danaren arabera 2009tik hona enpresek egindako lana agerikoa da. Izan be, kanpora begira BATZ enpresa traktorea da eta beste enpresa askorentzat eredu; era berean, BATZ hainbat erakundegaz alkarlanean dabil euskera lan-munduan sutatzeko eta administrazio zein bestelakoakaz dituan hartu-emonak euskeraz izateko aukerea emoten dau.

Bestalde, barrura begira barne-komunikazio eta lan-tresnen inguruko erizpideak zehaztuta dagoz eta lan-hizkuntzea euskera izan daiten pausu sendoak emon dira. Personak kudeaketeari jagokonez, elebitan egiten dan arren, euskerazkoa bultzatzen da.

Aitatzekoa da be, BATZen irudietan euskereari lehentasuna emoten jakola, barrura zein kanpora begira.



BATZeko Raul Arana, Ander Bilbao eta Luis Carlos Bilbao Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputaduagaz.

ZEANURI

Zeanuriko ermitak liburuaren aurkezpena

Erredakzioa

Zezeilaren 5ean, Zeanuriko Ipiñaburuko Muñiketako Santa Ageda ermitan egingo dan hamabietako mezearen ostean, Zeanuriko ermitak liburuaren aurkeztuko da. 62 orrialde ditu, 21 argazki koloretan, gehienak Jon Urutxurenak, eta Ander Manterolaren sarrerea dauka.

Zeanuriko Andra Mari Parrokiak atara dau liburu, Zeanuriko

Udalaren eta Joko-Alai alkartearen laguntzeagaz. Dibulgazio argitalpen bat da, publiko zabalari begira egindakoa eta ez adituentzat bakarrik. Euskeraz dago eta Zeanuriko ermita eta eleiza bakoaren gaineko komentario edo bertso batez gaituzte dator.



IGORREN EBATZI

Etorkizuna danon artean eregi

Gure Esku Dego (GED), Euskal Herrian erabakitze eskubidearen aldeko herri mobimentua, 2013ko bagilean sortu zan. Dinamika herritar honek, hasikeratik, hiru printzipiotan oinarritu dau bere ekinbidea: herri bat gara, erabakitze eskubidea daukagu eta herritarron sasoia da.

**Igorren Ebatzi**

Sortu eta urte batera, Euskal Herrian inoz egin dan ekintza handienetakoa antolatu eban: Durango eta Iruñea giza kate baten bidez lotzeako gai izan ziran eta Euskal Herria ilusino eta itxaropen barriz bete zan.

Hortik aurrera, asko izan dira burututako ekitaldi eta ekintzak:

mosaiko erraldoia, oihal katea eta estadio zein plazen jai erraldoia, galdera ikur itzela, Kataluniako prozesuaren aldeko manifestazioak...

Honez gain, Gure Esku Dego 180 herritan egin dauz kontsultak daborduko eta 177.000 lagunek parte hartu dabe herri galdeketa horreetan.

Aurten gainera, bagilaren

10ean Euskal Herrian inoz egin dan mobilizazio handiena antolatuko dau Gure Esku Dego. Horregaz batera, Herritarron ituna eta herri galdeketa bultzatuko ditu.

Igorren...

Igorren be hasikeratik ekin geuntsan Gure Esku Dego beharra zabaldu eta 2014ko giza ka-

terako 6 autobus bete genduzan.

Hortik aurrera be, hainbat ekintza egin doguz: Eskoziako erreferendun jai, herri mailako oihal katea, talo jana, mahaingurua (Iñaki Zarragoa, Garbiñe Biurrun, Ibon Arbulu), sinadura bilketa...

Igaz, Igorren Ebatzi (IE) izena jarri geuntsan gure taldeari, galdeketearen garrantzia azpimarratu eta alkarte izaera be emon

geuntsan. Horregaz batera, herri kontsulta 2018an egingo gendula erabagi genduzan. Aurten beraz, udabarriko olatu handi baten barruan, maiatzaren 6an hain zuzen be, izango da galdeketa hori eta Igorregaz batera, Euskal Herriko beste 26 herritan be egingo da.

Zergaitik kontsulta bat

Arrazoi ideologikoak aitatu

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

geinkez (federalista, autonomista, independentista edo unionista izan) edo kultura demokratikoa (parte-hartzea, eretxia izateko eta emoteko aukerea izatea) edo filosofikoa (herri-ekimen hutsa eta erabatekoa, alderdi politikoek antolatu bakoa bultzatzea); eskubideak be aitatu geinkez (giza eskubide kolektiboa da herriak berbea eta abotsa izatea) baita herri harrotasuna be, gure ondoko herri batzuk egin badabe, guk zergatik ez?

Igorre, herri txikia izan arren, gero eta anitzagoa da. Aniztasun hori kontuan hartuz, ekarpen koloretsu eta parte-hartzailea bultzatu gura dogu konsulta honegatz. "Zenbat buru hainbat aburu" dino esaera zaharrak, baina norberaren eretxia barruan, isilgordean izateak ez deusku onik egiten. Eretxia emoteak apur bat askeago egiten gaitu eta hobeto sentiara-

zo. Horregaitik Igorreko herri osoa (baiezkoak, ezezkoak zein zuriak) konbidau gura dogu, maiatzaren 6an antolatu eta ospatuko dogun jai handi honetara.

Badakigu, beharleku honetan, danon babes eta laguntzea ezinbestekoa izango dala. Horregaitik, Igorreko alderdi, talde, alkarte zein banakoak zezeilaren 22an Kultur Etxean egingo dogun batzarrera konbidau gura doguz.

Maiatzaren 6an erabakitze eskubidea aintzat hartu eta olatu barri batean murgilduko diran eta garan herriak honeek dira:

Aiara, Amurrio, Bertizarana, Deierri, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Gordexola, Gueñes, Igorre, Ituren, Labaien, Audio, Lezama, Muskiz, Okondo, Portugaleta, Saldias, Sunbilla, Urroz, Zamudio, Zigoitia, Zirauki, Zubieta eta Zuia.


HERRI KONSULTAK ARRATIAN

Dima
2016ko zemendian
%63,42 parte-hartzea

Zeanuri
2017ko maiatzean
%55,16 parte-hartzea

Areatza
2017ko zemendian
%45,35 parte-hartzea

Igorre
2018ko maiatzaren 6an
Parte-hartzea??
GURE ESKU DAGO



ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegia
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegia

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN ★ SOLARES

Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 099 482 8399 / 099 296 717

BIZARGINAK

Ajela era klasiko eta modernoan ebaciten dogu. Bixarra egin eta buzkunduen dogu.

Tel: 94 607 78 33

Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Kili-Kili

Ampo eta Puzkultura

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

Zugaitik BEGITUten dogu

A.P.I. 495

www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

Arratia
Ibide eta zeberioko
euskera
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be **Degitu-Lagun**

Hamabostero
Degitu zeure etxean

Etxean jasoko dozuz zertu kultur elkarteak ateratako produktuak.
Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Izen-abizenak:
Dagoi eta helbide honetara bidali:
Zertu Kultur Elkarteak
Berrakoa Plaza 21. 10112 Artea

Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuotea aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
BEGITANDU

FUTBOLA

Lidertzan sendo Arratia

Erredakzioa

Arratiako اندrazkoen talde biak lider jarraitzen dabe euren kategorietako sailkapenean. Andrazkoen A taldeak jokaturako atzen partidu biak irabazi ditu. Urtailaren 21ean Goierri Gorri taldearen kontra jokatu eben Beasainen eta partidu 3 eta 0 galtean hasi baziran be, markagailuari buelta emotea lortu eben 94. minutuan Amaia Alday dimoztarrak sartutako golari esker. Hurrengo astegoienean Arratiak 6 eta 0 irabazi

eutsan Pauldarrak taldeari. 20 jardunaldi jokatu eta gero Arratiak 51 puntu ditu. Datorren partidu Tolosa taldearen kontra jokaturako dau Arratiak etxetik kanpo zezeilaren 3an, arrastiko 17:30ean.

Arratia B

Arratia B taldeak be atzen partidu biak irabazi ditu, urtailaren 20an 4 eta 2 irabazi eban Ugao taldearen kontra eta urtailaren 27an Basauritar Emakume taldearen kontra 1 eta 3. Hilaren 3 eta 4ko astegoienean

nean Arratiak deskantsua hartuko dau eta hurrengo astegoienean Ariz taldearen kontra jokaturako dau Igozren. 14 jardunaldi eta gero lider da Arratia B 37 puntugaz.

Gizonezkoak

Arratiako gizonezkoen taldea be denporaldi polita egiten dabil. Seigarren postuan dago sailkapenean 29 puntugaz, liderrarengandik 5 puntura. Jokaturako atzen partidu husna bardindu eban lurretakoren kontra, aurreko partidu oster, 0 eta 1 irabazi eban Padura Aren kontra, partidu biak jokatu ditu etxetik kanpo Arratiak. Datorren partidu Urdulizen kontra jokaturako dau etxean zezeilaren 3an 18:00etan.

LemoaHarrobi eta Arratia B

LemoaHarrobi eta Arratia taldeak Lurraldeko Bigarren Mailan dagoz eta aurreko postuetan dagoz biak. LemoaHarrobik Plentziaren kontra jokaturako dau datorren partidu hilaren 3an 16:30ean. Arratia Bk oster datorren partidu Ibarsusiren kontra jokaturako dau zezeilaren 3an 15:30ean etxetik kanpo.

Sailkapenean hirugarren postuan dago LemoaHarrobi, eta 34 puntu ditu, Arratia B oster seigarren postuan dago 27 puntugaz.

MENDIA

Pumori igon eta gero Everestera igoteko bidea egiten dabil Txikon

Erredakzioa

Abenduaz geroztik Himalaian da Alex Txikon mendizale lemoaztarr, Everest mendia (8.848 metro), munduko mendirik altuena, neguan eta oxigeno artifizial barik igoten saiatzeko. Abenduan hasi zan espedizino honetan, Txikon eta taldekideak eguraldia lagun 7.800 metro ingururaino ekipetea lortu eben urtailaren 30ean jardunaldi gogor baten os-

tean. Urtilaren 31n eguraldiaren iragarpena bete ezker, laugarren kanpalekuraino heltzea eukien helburu, eta behe kanpalekura jaistea gero.

Tarte honetan Pumori mendiko gailurra be zapaldu dau arratiarrak, neguan tontor hau igoten dauan bigarren mendizalea da Txikon. Plangintzearen arabera, zezeila amaieran ekingo deusta taldeak mendiaren tontorrera heltzeako ahaleginari.



Argazkia: Javi Urola.

Arratiarrak Goierri Gorriren kontrako laugarren gola ospatzen.



Alex Txikon Pumoriko tontorrean.

Argazkia: @AlexTxikon.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

AZKOREA


Azkora jokoak Zestoako Santa Inesetan

Emoizta desbardinak lortu ebezan Aitzol Atutxak eta Irati Astondoak urtailaren 20an eta 21ean Zestoako Iraetako jaietan Urrezko Aizkorako Binakako Txapelketarako jokaturako saioetan.

Alvaro Rabelli

Gizonezkotan proba bi jokatu ziran. Zapatukoan Otegi-Mugertza bikotea Zaldua-Iraza bikotearen kontra nagusitu zan. Domekako arrastikoan, Iraetako pelotalekuan ehun lagunen aurrean, Atutxa-Alberdi bikoteak errez menderatu eban Otañok eta Lopezek osotutako bikotea. Bietan lan bera egin behar izan eben. Hasteko, 45 ontzakoa, nork kolpe gitxiagotan ebagi. Ondoren, tamaina bereko enborra erlojuz kontra ebagi. Hirugarrena, zutunik ipinitako kana-erdikoa erdibitu behar izan eben. Laugarrenean, etzunda ipinitako 60 ontzakoa ebagi. Bosgarrenean, zutunik ipinitako 45 ontzakoa eta etzunda ipinitako kana-erdikoa erdibitu; eta atzenean, txanda librean sei 60 ontzakoa ebagi.

Behar horreen guztien amaiera aldera Atutxa-Alberdi bikoteak minututik gorako alde atera e-



Aitzol Atutxa.

tsien euren aurkariai. Atzenean, alde horrerik eustea lortu eta irabazi egin eben. Atutxak eta Alberdik 19 minutu eta 29 segundo behar izan ebezan kanporaketea aurrera aterateko.

Ostera, andrazkoetan saio bakarra jokatu zan astegoen horretan. Irune Izkuek ez eutsan ezelango

aukerarik emon Irati Astondoari, eta egin beharreko lan bietan errez hartu eban mendean nafarrak Zeanurikoa. Oinbeteko enborra nork arinago ebagi izan zan egin beharreko lehenengo lana, eta hor minutu bat pasako alde atera eutsan Astondoari. Ostean, 45 ontzako bi ebagi behar izan ebezan, eta Izkuek minutu bi eta erdi pasako alde atera eutsan. Danera, lan guztiak amaitzeko, 6 minutu eta 59 segundo behar izan zituan Izkuek, eta 10 minutu eta eta 42 segundo Astondoak.

Aizkorak zorrotzen San Blasarako

Hain zuzen be, zezeilaren 3an, Abadiñoko azokan alkarren kontra jardungo dabe Iraetan irabazle suertatu ziran bikoteak. Holan, Atutxa-Alberdi bikoteak Otegi-Mugertza bikotearen kontra jardungo dau. Dimakoak ez dau saio erreza espero, Abadiñon aurkari eukiko dabezanak fin-fin ibili diralako oin arte, sano maila ona erakutsi dabe. Sano lehia gogorra espero da, beraz. Gainera, hemendik urtengo dauan bikote txapelkunak finalerako txartela eskuratuko dau. Besteak finalerdia jokatzegaz konformau beharko dau.

Irati Astondoa, barriz, duda da Abadiñorako. Zeanurikoa min hartuta dago, eta baleiteke, martia arte behintzat, plazetan ez ikustea. Halanda be, Abadiñon agertzekotan, Berako Nerea Sorondoren aurkako saioan agertuko da.

MOTORRAK

Arratiarrak Euskadiko Enduro Txapelketako lehenengo postuetan



Pedro Gorospe, Jon Zuazo eta Xabier Lejarreta.

Illart Gumuzio

Urtailaren 14an banatu ziran Durangon 2017. denporaldiko Enduro Txapelketako sariak. Bertan, Pedro Gorospe dimoztarrak beterano mailako lehenengo saria jaso eban eta Jon Zuazo igorretarrak senior mailako bigarrena.

Elgoibarren urri bigarrenean amaitu zan txapelketeak lasterketa desbardinak emoitzez osatu dau sailkapen orokorra. Sariak jaso ondoren, arratiarrak 2018ko denporaldia aurrekoa besteko ona edo hobia izan daiten prestaketa lanetan jarraitzen dabe.

Matrikula garaia

zezeilaren 9ra arte
Emon izena Arratiako ikastetxeetan.

Onakiaio Harri Ikastetxeak
Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



2 urtean 18ra

ABESBATZA



Luis Iruarrizaga abesbatzak gizonezkoen abotsak behar ditu

Erredakzioa

Igorreko abesbatzan tenore eta bajo abotsak daukiezan gizonezkoen bila dabiz. Luis Iruarrizaga abesbatzak jentea "abestera eta musikaz gozatzera" animau gura dau.

Koruak martitzen eta eguaztetan izaten ditu entseguak, arrastiko 20:00etan Kultur Etxean.

Interesa daukanak 659 667 699 telefono zenbakira deitu behar dau edo mezua bialdu iruarrizagabesbatza@gmail.com helbidera.

MUSIKEA

Jazz kontzertua Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Zezeilaren 15ean, 20:00etan, Alvaro Torres Trio jazz taldea entzuteko aukerea egongo da Igorreko Kultur Etxean.

Alvaro Torres (Madril, 1993) Bartzelonako Jazz eszenan pianojole esanguratsua da. Bere jaioterrian ikasketa klasikoetan nabarmendu ostean, Kataluniara jo eban doinu afroamerikarretan sakontzeko. Gaztea izan arren,

nazinoarteko musikariakaz izan da oholtza gainean, Europatik zein Latinoamerikatik emondako kontzertuetan, besteak beste.

Alvaro Torres Trio, Paul eta Carla Bley-ren musikan inspirautu datur Euskal Herrira. Hirukote honen jazz eta inprobisazio librea bitarteko topagunea topetan dau. Hirukote hau Ivo Sans bateriak, Eric Surmenian kontrabajak eta Alvaro Torres pianistek osatzen dabe.



ARATUSTEAK

Aratusteak ailegau dira

Erredakzioa

Zezeilaren 4ean ospatuko diran Kanporamartxoakaz hasiko dira Aratusteak gurean. Egun horreetan zehar Arratia osoan egongo da jai giroa; izan be, herri askotan egitarau bete-betea eukiko dabe. Mozorro lehiaketak, eskoletako mozorro jaiak, bazkariak eta musika emonaldiak izango dira protagonista. Besteak beste, guraso alkarteak, eskualdeko Udalak, AKKBk, Arratiko Zekorrek-ek, Jubiladuen alkarteak eta Dimako tabernak parte hartuko dabe neguko jai honeetan. Mozorro jai batzuek, gainera, gai bat hartuko dabe ardatz. Holan, Dimako Abizarie alkarteak Euskal Herriko inauterietako pertsonajeak eukiko ditu mozorro gai; Lemoako ikastetxeko inauteri festan koloreak izango da gaia; eta Zeanurikoan, barriz, Far-West-a. Aikomezan egitarauak.

Zezeilak 9, barikua

Artea

19:00etan, ipuin kontalaria Kultur Etxeko Areto Nagusian; 21:00etan, kontzertua Herriko Bentan. Aste osoan zehar mozorroak prestatu Ludotekan.

Igorre

17:00etan, Guraso Elkartearen eskutik jaialdia. DJ Isma eta txokolatadea; 19:30ean, Igorren Ebatzi alkartearen eskutik talo-jana errugbiko tabernaren ondoan.

Lemoa

10:30ean, gurasoak prestatutako txokolatadea JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta; 11:30ean,

eskolako mozorro jaiak. Gaia: koloreak.

Zeberio

18:00etan, mozorroa egin Aratusteetarako Gaztelekuan. Gaia: indioak.

Zezeilak 10, zapatua

Areatza

AKKB Eguna. 09:30ean, mendi urtekerea. Areatzako eleiza portikuan. Peña Athletic Gorbeako Gurutzeta eta Lamino Kirol Klubak antolatuta; 10:30ean, buzoia ipini Birgun mendian; 11:30ean, haiaiketako Birgunen; 15:00etan, bazkaria (baba-jana) Areatzako Bainuetxean. Danok mozorrotuta; 18:30ean, Gari eta Iñaki trikitilarien erromeria eta ostean trikipoteoa; 21:30ean, EH Sukarra taldearen kontzertua Laminetxe Gaztetxean (sarrerak salgai 10 euroan Bixer eta Hagiña tabernatan). AKKB Eguneko bazkarirako izen-emotea zezeilaren 5ean 19:30etik 20:30era udaletxeko 3. solairuan.

Dima

12:30ean, mozorro jolasak; 14:30ean, mozorro bazkaria (txartelak tabernetan salgai), ostean bingoa; 18:00etan, diskofesta; 19:30ean, afari meriendea; 20:00etan, txokolatada eta ostean kantu poteoa.

Igorre

12:00etan, 105etik hasita kalejireia; 15:00etan, herri bazkaria (baba-jana) Arratiko Zekorrek-ek antolatuta aterpean. Ostean Jokaldigaz erromeria; bitartean Mozorro Lehiaketea.

Lemoa

17:00etatik 20:00etara, puzga-

riak, jokoak, "photomaton" gunea, txokolatada, musika, jantzea...; 19:00etan, poteo musikatu Orkresta elektrotxarangeagaz eta pikoteoa Alkartetxetik hasita; 23:00etan, erromeria Lehian taldeagaz Gaztetxean.

Zeanuri

Karnabalak 2018. Far-West. 13:00etan, heritik poteoa; 14:30ean, bazkaria Batzokian (izena 7ra orduko emon). Arrastian Bieskas bikote akustikoa.

Zeberio

18:00etatik aurrera Aratusteak Gaztelekuan.

Zezeilak 12, astelehena

Bedia

17:00etatik 19:30era, inauterietako tailerrak. Ludotekan.

Zezeilak 13, martitzena

Arantzazu

17:00etan, frontoitik hasita kalejireia mozorrotuta heritik; 18:00etan, Herriko Tabernan Tostada Lehiaketea eta txokolatada.

Bedia

Frontoian. 17:00etatik 18:00etara, mozorro desfilerako izen-emotea, Photocall-a eta karaokea; 18:00etan, mozorro desfilea herri mailan; 18:30ean, Diskodantza taldea; 19:30ean, txokolatada.

Zezeilak 17, zapatua

Dima

Tabernetan kontzertuak egongo dira eta mozorrotuta doanak txupitua eukiko dau doban. 19:30ean, Betileit taldea Jentiluzubi Herriko Tabernan; 20:45ean, Madnetik taldea Taberna Barrin; 22:00etan, Outsiders Duet taldea Aramotzen; 23:15ean, Lion Heart taldea Baltzola tabernan; 01:30ean, Trastoma2 taldea Ugatxan.

LEHIAKETEA

Lemoako Haur eta Gazteen XVI. Ipuin Lehiaketea martxan dago

Erredakzioa

Aurreko urteetan lez, daborduko martxan dago Lemoako Haur eta

Gazteen XVI. Ipuin Lehiaketea. Udal liburutegiak antolatuta, ipuinak zezeilaren 26tik martiaren 2ra bitartean bialdu ahal izango da.

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziana

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

olaetxe

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gaitua
Begiako tentsioa
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



www.izkaifisios.com

Aneta guttiara
Laguntza psikodiatribua
-Logopedia
-Fisioterapia
-Fisioterapiak
-Izkaifisios
eta elkarrekin

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA - SINTASOLA - PAPERAK

Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 83 - 908 88 4 018

izkaifisios

IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elizalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@izkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKA
Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

ANTZEZLANA



Ander Lipus eta Patricia Urrutia.

Hozkailua antzezlan Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Huts Teatoa antzerki konpainiaren *Hozkailua* antzezlan taularatu da hilaren 9an, barikua, Igorreko Kultur Etxean, arrastiko zortziretan. Unai Iturriaga bertsolari durangarrak idatzi dau gidoia, Simon Fuchs-ek zuzendari beharrik egin ditu eta Ander Lipus, Arratian sano ezaguna dan aktore markinarra, eta Patricia Urrutia dira aktoreak. Sarrerak 8 euroan dagoz salgai; bazkideak, ostera, 6 euroan erosi ahal izango dabez

sarrerok.

Biaje bitxi baten kontakizuna da *Hozkailua*. Maite eta Karlos herririk herri dabiz hozkailu zahar bategaz. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarren Jimmy lagunaren hilotza daroe; zin egin eutsien eta Jimmyri bere jaioterrian lur emongo eutsela. Nongoa zan galdetzea ahaztu eben ostera.

Benetazko adiskidetasun bat azaleratuko dauan ezinezko bilaketa baten istorioa da antzezlan.

TOPONIMIA

Areatzako toponimia eta herri ondarea aztertu da

Atzen hilabeteetan Areatzako toponimia eta herri ondarea batzeako lana egin dau Areatzako Udalak, Labayru Fundazioagaz batera.



Udaletxean egin zan abenduaren 28ko aurkezpenean bildutakoak. Argazkia: Labayru Fundazioa.

Erredakzioa

Lan hori aurreko urtean hasi zan artiboetako araketa bibliografikoa eginda. 2017an, artiboetatik lortutako toponimoen zerrendea herriko lekukoakaz kontrastau dabe. Hainbat as- tean zehar landa lana egin zan, eta horretarako Labayruko tek-

nikariak Areatzako herritarrakaz alkartu dira euren lekukotzak jaso eta bideoz grabetako; testigantza guztiak bildu ostean, guztira 30 orduko ikus-entzunezko lana osatu da parte hartu daben bederatz lekukoakaz.

Grabazioetan parte hartu dabenak Franziska Etxebarria eta Ignazio Aranburu, Begoña Be-

reziartua, Maribel Gorostizagoiza, Mikel Urriz, Julio Ortuzar, Luis Etxebarria, Santi Canales, Jose Luis Madariaga, Víctor Orue eta Jose Luis Orue izan dira. Grabazioetan toponimo edo leku izenez gain bestelako gaiak be landu dabez hiztunek, besteak beste, garai haretako bizimodua eta dagoeneko erabilten ez diran berbak edota ohiturak.

Beraz, toponimoen gainekoak ez eze, herriko ondareari buruzko informazio ugari eta aberatsa batu da ikerketa horretan: artzain eta ikazginen bizimodua, baso-lanak, herriko bizimodua, balnearioa eta beraneanteak... aitazten dira.

Horren guztiaren barri ordu erdiko bideo baten bidez emon eben abenduaren 28ko ekitaldian. Bertan, lekukoai grabatuko pasarteak erakutsi eutsiezan, bai toponimiaren gainekoak zein bizimoduari buruzkoak. Bertan bildu ziran Udaleko ordezkariak, Labayruko teknikari zein arduradunak, baita grabazioetan parte hartu daben hainbat kide be.

Bideoa ikusi ostean Adolfo Arejtitak, Labayru Fundazioaren zuzendariak, berbaldi mamitsua eskeini eban. Ondoren, Asier García Artetxe alkateak lekuko bakotxari bertako produktuakaz osotutako otzarea emon eutsen esker ona adierazoteko.

Aurrera begira, egindako toponimia lana eta aurretik egozan datuak baliatuta mapa toponimiko bat egiteko asmoa dauka Udalak. Behin hori osatuta, 1.000 ale argitaratu gura dabez herritarren artean zabalduko.

DUNBA

Areatzako eskolea zineman sartuta

Areatzako eskolako LH3ko ikasleak

LH3ko ikasleak, aktore, zuzendari eta gidoilari. Kursoaren hasieran, beti bezala, Areatzako ikasleak proiektua aukeratu eben. Hasierako proposamenak honeek izan ziran: marrazoak, mendiak, ura, musikea eta zinema. Guztiak aztertu ostean pelikula bat grabetea atera zan.

Hasteko, ze eratako pelikulea egingo eben jakiteko, pelikulen generoak aztertu ebezan.

Gelan 26 ziranez bi talde egin ebezan, bi pelikula egiteko asmoz; honeek ziran pelikulen izenak: *Pailazoen konkista* eta *El asilo de la muerte*, baina konturatu ziran persona gehiegi egozala behar egiteko. Orduan, bost talde egin ebezan, bost laburmetrajeko grabetako.

Pelikulakaz aurrera egiteko gidoi literarioa idazten hasi behar izan eben eta horretarako, hainbat pelikulen eta serieren gidoi literarioak aztertu ebezan zelan idazten ziran jakiteko: sinopsia, personajeen deskripzioak, sekuentzietako alkarrizketak, letra mota (*Courier New 12*)...

Ostean gidoi teknikoagaz segidu eben sekuentzia bakoitzean: non grabau, zelan grabau, materiala, kameraren lekua, behar ziran estrak...

Bitartean, kamaren informazioa topetan hasi ziran pelikulak grabetako eskolako baliogarria zan edo ez jakiteko. Informazio askogaz ibili ziran: pixelak, Full-HD, GB, KB, bereizmena, hartz-beteak (pulgadak)...

Gidoiak amaitu ostean, grabaketak egiten hasi ziran gidoi teknikoai begiratuz. Grabaketak



aurrera eroateko arazo asko euki ebezan: erropea, baimenak, ardurak, ordutegia...

Pelikulen grabaketen inguruan gehiago jakiteko Goazeneko Nerea Mazo "Nikole" konbidau eben eskolara. Zinemaren inguruko galdera asko argitu eutsen: gidoiak ikasteko erak, egun osoko grabaketen barri emon eutsen, sekuentziak ez dirala jarraian grabatzen, gazapoak...

Behar asko egin ostean pelikulak grabata dagoz. Honeek dira: *Diamantearen lapurreta*, *Hiltzaille ezkutua*, *Eskolan infiltratuak*, *Lolita* eta *ume koadrila* eta *El gran atraco*.

AGENDEA

ZEZEILAK 1 ARRATIA

Zezeilaren 24ean izotz pistara urtekerea. Izena emoteko epea zabalik zezeilaren 19ra arte Igorreko Gazteria Zerbitzuko bulegoan, 688 898 765 telefonoan edo Lemoako Gaztelekuan. Igorre eta Lemoako 12-16 urte bitartekoentzat.

DIMA

"Adimen susperteta" ikastaroan izena emoteko atzen eguna. Zezeilaren 5etik maiatzaren 28ra izango da ikastaroa astelehenero 15:45etik 16:45era. Izena jubiladuen etxean emon. Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta.

"Bidaiazteko ingelesa" ikastaroan izena emoteko atzen eguna. Zezeilaren 8tik maiatzaren 31ra izango da ikastaroa eguenero 15:45etik 16:45era. Izena jubiladuen etxean emon. Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta.

IGORRE

20:00etan, zinekluba *Me and Earl and the Dying Girl (Yo, el y Raquel)*. Lasarte Aretxoan.

Mendi bete diru erakusketa Kultur Etxean hilaren 20ra arte. Ganzabalek antolatuta.

19:30ean, Santa Agedako entsegu. Kultur Etxean. Igorren Ebatzi alkarteak antolatuta.

Zezeilaren 13an Valdezcarayra eskietan joateko urtekerea. Izena emoteko epea zabalik zezeilaren 9ra arte Gazteria Zerbitzuko bulegoan edo 688 898 765 telefonoan. 12-16 urte bitartekoentzat.

LEMOA

Gazteentzako Europako biagean izena emoteko epea zabalik. Izena udaletxean edo 94 631 30 05 telefonoan emon. 1997 eta 2001 urte bitartean jaiotakoak lehentasuna eukiko dabe. Leku mugatua dago. Lemoako Udalak antolatuta.

Haur eta Gazte XVI. Ipuin Lehiaketa. Udal liburategiak antolatuta, ipuinak zezeilaren 26tik martiaren 2ra bitartean bialdu behar dira.

Arazakeria eta Xenofobiaren Kontrako Egunerako, logo bat sortzeako Logo Lehiaketa. Parte hartzeako epea zabalik zezeilaren 28ra arte. Informazio gehiago www.lemoa.net helbidean.

ZEANURI

17:00etatik 19:00etara, "Multi-alergiak eta bere ondorioak" berbaldia Kultur

Etxean. Berritzeguneak eta Arratiako Udalen Mankomunitateko Prebenzino Zerbitzuak antolatuta. Arratiako ikastetxeetako ikasle, irakasle eta Arratiako familiei zuzenduta.

Zezeilaren 14, 16 eta 17an, Alkibergo presara bisita gidatua goizez. Izena udaletxean emon behar da zezeilaren 7a baino lehenago.

ZEBERIO

Udalak apirilaren 16tik 24ra antolatu dituan lehenengo mailako informatika ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago.

ZEZEILAK 2 AREATZA

16:30ean, umeai zuzendutako ekintza Gorbeaiako Parkean. Nazinoarteko Hezeguneen Eguna.

19:15ean, Aldamin taberna hasita, IV. Errefra Poteoa. Arkaiz Estiballes eta Fredi Paia bertsolariakaz.

DIMA

19:30ean, Etxean gure doguz-ek antolatutako lehenengo barikuko kontzentrazioa plazan.

IGORRE

10:30ean, Doremika: Baos. Kontzertu didaktikoa, Arratiako eskoletako umeentzat.

20:00etan, *El banquete. Degustación de historias* nagusientzako ipuina Ines Bengoaren eskutik.

ZEZEILAK 3 IGORRE

22:00etan, zinea *El autor*. Lasarte Aretxoan.

Jaietako Kartel Lehiaketa martxan

Igorreko jaietako Kartel Lehiaketarako kartelak aurkezteko epea zabalik dago. Partaideak Igorrekoak izan behar dira eta udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko dabe proiektua martiaren 2ko eguerdiko ordu bata baino lehen.

Parte-hartzaileak kartel bi aurkeztu beharko dabez: bata testuagaz; eta bestea diseinuagaz baino ez, testu barik. Kartelean ipini behar dan testua "Igorreko jaiak 2018, bagilaren 8tik 17ra" da. Bi euskarritan aurkeztu daitezke proiektuak; A3 paperean edo CDan.

Proiektuari ez jako izenik ipini behar eta proiektuagaz batera kartazal itxi batean datu honek aurkeztu behar dira: izen-abizenak, telefonoa eta helbidea.

Aurkeztutako kartelak Kultur Etxeko sarreran ipiniko dira irabazlea heritarrek aukeraturako. Boto bitartez aukeraturako da irabazlea eta horretarako martiaren 18ra arte egongo da epea zabalik. Martiaren 21ean jakinarazoko da ebatzia.

Irabazleak 400 euroko bonoa jasoko dau Igorreko jaiak antolatuten lagunduten daben komertzioetan erabilteko.

LEMOA

19:00etan, Javi Undurragari omenaldia kiroldegian. Lemoako Abesbatza Elkartek antolatuta. Goizeko 10:30ean urtekerea Elizondotik Lemoaxara. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

ZEBERIO

San Blas Saldarian auzoan.

ZEZEILAK 4 ARANTZAZU

Agate Deuna. 10:00etan, plazan batu auzoetara joateko; 11:00etan, plazan heritik kantetako.

ARRATIA

Agate Deuna. Arratiako Korua. Ikusi ibilbidea 5. orrialdean.

ARTEA

13:00etan, Kanporamartxo. Elexabeti auzoan.

BEDIA

17:00etan, plazan alkatu Agate Deuna auzorik auzo kantuan joateko.

IGORRE

12:00etan, Beheko Plazan alkatu Agate Deuna abestuten joateko. Igorren Ebatzi alkateak antolatuta.

17:00etan, zinea *Ferdinand*; 19:30ean, *El autor*. Lasarte Aretxoan.

LEMOA

10:00etan, urtekerea bizikletan Arlonagusia kaleko saskibaloikantatik. Txirindulari Elkartek antolatuta.

10:00etan, Ageda Deuna bezperako kanta

kalejirea. Udaletxean hasita. Arratiako Korua egongo da 10:15ean. 11:35ean, Elizondon saldea eta txorizo egosiak eskeiniko dira parte-hartzaileentzat. JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak eta Udalak antolatuta.

ZEANURI

Agate Deuna. 11:00etan hasita Zeanuriko korua ibiliko da heritik kantuan.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *Bye Bye Blondie*. Eskola zaharrean.

ZEZEILAK 5 LEMOA

18:00etatik 20:00etara, "Eskola jazarpena eta bere ondorioak" berbaldia Elizondoko Kulturgunean. Arratiako Udalen Mankomunitateko Prebenzino Zerbitzuak antolatuta.

ZEANURI

12:00etako mezearen ostean *Zeanuriko ermitak* liburuen aurkezpena Ipiñaburuko Muñiketako Santa Ageda ermitan.

09:30ean, mendi ibilaldia plazatik urtenda; 10:30ean, Ipiñako txokoan. Ibilbidea: Plazea, Ipiña, Santa Ageda (hamaiketako), plazea. Gorbeia Jubiladuen eta Pensinodunen alkarteak antolatuta.

ZEZEILAK 7 DIMA

18:00etan, Dimako Guraso Elkartek antolatuta, ume eta familiarentzako irakurle kluba Mireia Delgadoaren eskutik liburategian.

ZEZEILAK 8 LEMOA

10:00etan, txixi-burruntzia eta txokolatada guraso eta ikasleentzat. JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta.

ZEZEILAK 9 ARTEA

19:00etan, ipuin kontalaria Kultur Etxeko Aretxo Nagusian; 21:00etan, kontzertua Herriko Bentan. Aste osoan zehar mozorroak prestatu Ludotekan.

AREATZA

22:00etan, Sin Mas eta Turbofuckers taldeen kontzertua Laminetxe Gaztean.

IGORRE

Aratusteak 17:00etan, Guraso Elkarteen eskutik jaialdia. DJ Isma; 18:00etan, txokolatada. 19:30ean, Igorren Ebatzi alkartearen eskutik talo-jana.

19:00etan, *Siria: 7 urte NATO, Israel zein*

wahabismoaren inbasio, gezur eta hilketak sufritzen berbaldia Kiñu Gaztean.

20:00etan, Huts Teatroaren *Hozkailua* antzezlan.

LEMOA

10:30ean, gurasoak prestatutako txokolatada JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta; 11:30ean, eskolako mozorro jai. Gaia: koloreak.

Urtekerea Pirinioetara. Mendiko eskia eta raketak. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

ZEZEILAK 10 ARRATIA

Aratusteak. Ikusi egitarau 12. orrialdean.

ZEZEILAK 11 IGORRE

17:00etan, zinea *Sola en casa*; 19:30ean, *El gran showman*. Lasarte Aretxoan.

LEMOA

10:00etan, urtekerea bizikletan Arlonagusia kaleko saskibaloikantatik. Txirindulari Elkartek antolatuta.

ZEZEILAK 12 BEDIA

17:00etatik 19:30era, inauterietako tailerrak. Ateak zabalik ludotekan.

ZEZEILAK 13 ARANTZAZU

Aratusteak. 17:00etan, frontoitik hasita kalejirea heritik mozorroetara; 18:00etan, herriko taberna Tostada Lehiaketa eta txokolatada.

BEDIA

Inauteriak frontoian. 17:00etatik 18:00etara, mozorro desfilerako izen-emotea, Photocall-a eta karaokea; 18:00etan, mozorro desfilea herri mailan; 18:30ean, Diskodantza taldea; 19:30ean, txokolatada.

ZEZEILAK 14 ARTEA

Hilaren 28ra arte, *Cerra eta Bakea, Sarajevo* erakusketa. Kultur Etxeko Aretxo Nagusian.

ZEZEILAK 15 IGORRE

20:00etan, Alvaro Torres Trio-ren jazz kontzertua. Lasarte Aretxoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimendu gutzia egunean eroandakoa, garajea aparkatutakoa eta atoi bolegaz. Telefonoa 688 602 516.

BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

DANERIK

LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

LAN ESKEINTZA

Estetizista bat behar da Igorreko estetika zentro baten, lanaldi erdirako. Gitienez urte biko esperientzia eskatzen da. Interesdunak bialdu curriculum eta argazkia haizenatur@gmail.com helbidera.

ETXEA ALOKAIRUAN

Igorren, 2. solairuan. Argitsua eta epela. Beheko Plazatik hur. Interesdunak deitu 644 955 345 telefonora.

ETXEA ALOKAIRUAN

Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea dauka. Berokuntza txapeagaz eta gasagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margarita).

PISUA ALOKAIRUAN AREATZAN

Parkean, eraikin barria; logela bi, komun bi eta patioa. Bigarren solairuan, ingongailua dauka. Trastelekua eta aparkalekua aukeran (eraikin berean). Interesdunak deitu edo idatzi 619 445 991 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Huts Teatroa konpainiaren *Hozkailua* antzezlanerako.

Olaia Gurtubai (Dima)
Gotzon Idirin (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *El autor* filma ikusteko.


Kepa Intxausti (Igorre)
Pedro Jose Ormazabal (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Italiako ibaia. Jagole.
2.- Kortezubiko udalerriko herrigunea. Japoniako erdikaldeko uria eta portua. 3.- Sufrimentu. Zidarra. 4.- Izakera. 5.- Berrogeta hamar erromatar. Bibliako pertsonajea, Noeren semea. Letra bat. 6.- Nahinon. 7.- Persona izenordaina. Azkar. 8.- Arra ez dana. Estaduko Nortasun Agiria. 9.- Lasai. Iridioa.

GOITIK BEHERA

1.- Tiroaren onomatopeia.
Aurrerago. 2.- Ospe. Arratiako udalerria. 3.- Beharbada. Erbioa. 4.- Atzen letrea. Hausia. Bokala. 5.- Urrea. Aldarte. 6.- Haran. Panpina. 7.- Malko. Narria, narra.



Topau zuzatz gaintara igoten daben zazpi animalia izenak.

P	A	R	A	G	O	K	U	A	K
E	M	U	S	K	E	R	R	A	O
R	U	K	O	A	L	A	M	E	R
R	Z	A	R	E	P	A	I	G	O
E	N	T	O	A	L	K	E	K	A
T	X	A	M	E	R	I	A	U	M
X	I	M	O	B	A	T	X	A	M
O	Z	I	G	A	U	R	K	O	Z
L	A	X	T	A	M	E	Z	N	I
A	T	E	G	L	E	O	R	I	K
D	O	R	A	M	I	A	U	M	O
I	K	R	O	L	E	G	A	I	L
P	E	A	O	G	O	K	E	X	A
U	N	A	A	K	A	S	O	T	U
L	M	S	A	M	I	P	A	D	E

AKMIKO

Iman Olatu



umoz moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tf. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 631 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE** ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA
AUTOAK ETXEBIZITZAK DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA... AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
KONSUMO ZUZ. ADMINISTRAZIO ZUZ. INGURUGIRO ZUZ.
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejatexa@hotmail.com

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
Kameta euskaraz zein erdaraz
Gatze, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
telefonoa 94 631 36 31 faxa 94 673 70 83
e-posta: unozula@euskalnet.net

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

